

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urtarrilaren 15a

5. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, udaldi honetan Nafarroako osasun-sistema publikoan ospitale-oheak ixteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Urdazubiko Alkerdi marmol-harrobian dinamita erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, diru-bilketa fiskalari buruzko informazioa emateko erabilitako “diru-bilketa likido” eta “diru-bilketa garbi” kontzeptuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Iberdrolako akzioak saltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, “Proposamen fiskal integrala” lan-agiriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, animaliak babesteari eta ikuskizun publikoei buruzko foru araudian ezarritakoa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, udaldi honetan Nafarroako osasun publikoan ospitale-oheak, solairu erdiak eta operazio-gelak ixteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuaren erabaki bat betetze aldera abiarazitako ekimenei buruzkoa. Erabaki horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidearen osasun zentroetan zerbitzatzen den janariaren kalitatea dela-eta etengabeko ebaluazioa egin dezan. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, NA-5100 (Garinoain-Leotz), NA-5110 (Puiu-Lergako gaina), NA-5154 (Uzkietia) eta NA-5163 (Santsoain) errepideen konponketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Gizarte Politiketako Departamentuak Adopziorako Entitate Laguntzaileen gainean egiten duen kontrol eta ikuskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileen tarifei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek lankidetzaren kontzeptuan jasotzen dituzten kopuruei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Foru Administrazioa Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileez baliatzearen arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek bete behar dituzten oinarri arautzaileei eta sinatzen dituzten hitzarmenen edukiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek arauak eta entitate horiek kreditatuta daudene-ko jarduerak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, adingabearen jatorrizko herrialdeetako arau- edo lege-aldaketek Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek egiten duten lanean dauzkaten ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileen eginkizunei eta jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, onetsitako lege-aldaketak Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileei aplikatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, 1051/2013 Errege-dekretuan oinarritutako arau-aldaketei buruzkoa eta mendetasunaren arloan diharduten pertsonen gaineko Europako araudia aldatzeko aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Musikako Gradu Profesionaleko eta Goi Mailako piano-jotzaile errepertoristaren espezialitatean aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak egiteko erabilitako irizpideei buruzkoa eta Estatuko Gobernuak musikako goi mailako irakaskuntzei eta irakaskuntza profesionaleri dagozkien espezialitate berrietako gaitegiak argitara eman ditzan egin diren kudeaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, balantza fiskalei buruz Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egin duen txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, udaldi honetan Nafarroako osasun-sistema publikoan ospitale-  
oheak ixteari buruzkoa.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, udaldi honetan Nafarroako osasun-sistema publikoan ospitale-oheak ixteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, udaldi honetan Nafarroako osasun-sistema publikoan ospitale-oheak ixteari buruz (8-14/PES-00140). Hau

erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du gaixo bat ere Nafarroako zentro itunduetara desbideratu udaldian bere zentroetako ohe-ixte programatuaren ondorioz.

– Udaldian zentro pribatuetara egin diren ospitaleratze-desbideraketak urtean zehar ere desbideratzen den ohiko jarduerari dagozkio soil-soilik, eta O-NOZek ospitale-egonaldi ertainetarako San Juan de Dios Ospitalearekin eta geriatriarako San Miguel Klinikarekin dituen hitzarmenen babesean egin dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, Urdazubiko Alkerdi marmol-harrobian dinamita erabiltzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Urdazubiko Alkerdi marmol-harrobian dinamita erabiltzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Alkerdi harrobian egindako leherketari buruz (PES-147). Galdera hori 2014ko abuztuaren 13ko 2173 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Gobernua meatze-enpresarekin harremanetan jarri al da jakite aldera zenbat dinamita erabili zuen uztailearen 15ean eta zer segurtasun-neurri hartu zituen egun hartan?

Energiaren, Meatzaritzaren eta Industria Segurtasunaren Zerbitzua enpresarekin harremanetan jarri zen uztailearen 15eko astean berean, egindako leherketari buruzko informazioa eskatzeko.

2. Enpresak emandako informazioa eskueran baldin badauka, zenbat dinamita erabili zuen eta zer segurtasun-neurri hartu ziren egun hartan?

Enpresak emandako datuen arabera, guztira 2.050 kilogramo lehergai erabili ziren. Ez zen gainditu Enpresa eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusiak 2012an baimendutako leherketa-proiektuan ezarrita dagoen muga, gehienez 3.041 kilogramoko karga onartzen baitu.

Enpresak ohiko neurriak hartu zituen, leherketa-proiektuan aurreikusita daudenak. Aipatu behar da sismografoa jarri zela Berroberria kobazuloan eta neurketaren emaitzak araudi aplikagarrian ezarritako parametroen barruan daudela. Enpresak adierazi du, halaber, hurbileneko etxean sismografo bat jarri nahi izan zutela baina etxeok ez zirela baimenik eman.

Azkenik, esan behar da aurreko bi alditan 2.000 kilogramotik gorako kargak erabili zirela. Baliteke, hala ere, uztailearen 15eko leherketa izatea gehien nabaritu dena, bere orientazioagatik eta baldintzengatik.

3. Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartu ditu uztailearen 15ean gertatutakoaren ondoren, harrobiari eta enpresari dagokienez?

Uztailearen 23an, prebentzio-neurri gisa, leherketa gehiago ez egiteko eskatu zitzaion idatziz ustiatetikozko zuzendari fakultatiboari.

Uztailearen 30ean, ustiatetikozko bisita egin zuten batera Industria, Energia eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak, Ingurumen eta Urarenak eta Kulturakoak, uztailearen 15eko leherketaren ondoriozko egoera aztertzeko.

Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusiaren abuztuaren 12ko 668/2014 Ebazpenaren bidez, Alkerdi ustiatetikozko zuzendari lanak eta leherketak behin-behinean eten ziren, erauzte-jarduera ondare historiko babestua zaintzearekin bateragarria zen baloratzeko eta, hala bazegoen, beste leherketa-proiektu bat onesteko.

4. Gobernuak zer neurri hartuko ditu etorkizuneko balizko leherketen aurrean herritarrek babesteko?

Jada adierazi denez, ustiatetikozko leherketa lanak etenda daude.

Beste leherketa-proiektu bat baimentzen bada, aplikatu beharreko araudi indarduna betetzea bermatu behar du, eta araudi horrek barnean ditu biztanleak babesteko neurri egokiak.

5. Gobernuak kobazuloak babesteko zer neurri hartu ditu harrobia egiten ari den leherketetatik?

Aurrean adierazi den moduan, Alkerdi ustiatetikozko zuzendari lanak eta leherketak etetea behin-behinean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 24an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, diru-bilketa fiskalari buruzko informazioa emateko erabilitako “diru-bilketa likido” eta “diru-bilketa garbi” kontzeptuei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, diru-bilketa fiskalari buruzko informazioa emateko erabilitako “diru-bilketa likido” eta “diru-bilketa garbi” kontzeptuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Gobernuak diru-sarrerei eta aurrekontuaren betetze-mailari buruzko informazioa emateko erabilitako “diru-bilketa likido” eta “diru-bilketa garbi” kontzeptuei buruzkoa (8-14/PES-00146). Galdera hori 2014ko uztailaren 30eko 2128 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Kontzeptuari erreparatuta “diru-bilketa garbi” eta “diru-bilketa likido”, bi terminoak berdin erabiltzen dira, baina kasu honetan termino horiek

bereizi egin dira antzekoak bai baina berdin-berdinak ez diren kontzeptuak adierazteko.

Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko txostenean ageri den diru-bilketa garbia, batetik, ekitaldian likidatutako eskubideetatik lortutako diru-bilketa da (dirutan eta konpentsazioz kobratutakoa, guztira, ordaindutako itzulketak kendutakoa).

Bestetik, hiru hilean behin diru-bilketa likidoari buruz argitaratzen diren datuek barnean hartzen dituzte bai oraingo ekitaldian bai itxitako ekitaldian sortutako eskubideetatik etorri diren kobrantzak.

Zerga Ogasunaren diru-bilketari buruzko txostenean, bestalde, Zerga Ogasunak diru-sarreen 3. kapituluaren kontrolatzen dituen kontusailei dagozkien kobrantzak soilik jasotzen dira. Aurrekontu-betetzeari buruzko txostenean, aldiz, datuak kontusail gehiago hartzen ditu, departamentuek tasa eta zehapenen bidez lortutako diru-sarrera guztiak sartzen baitira diru-bilketari buruzko txostenean ageri ez diren kontusail horietan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 25ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

**Galdera, Iberdrolako akzioak saltzeari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iberdrolako akzioak saltzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Iberdrolako akzioak saltzeari buruz (8-13/PES-00145). Galdera hori 2014ko uztailaren 29ko 2118 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak ematen dion informazioa:

Iberdrola, S.A.ko akzioen salmenta 2014ko uztailaren 20an

ENTITATEA	Gordallututako akzioen kop.	Saldutako akzioak	Saldutako akzioak (%)	Salmenta data	Salmenta prezioa akzioko	Zenbatekoa dirutan
CAIXABANK	13.188.376	2.637.675	% 20,00	2014/04/01	5,0651 €	13.360.053
		1.318.837	% 10,00	2014/04/02	5,0565 €	6.668.662
		25.000	% 0,19	2014/05/26	5,2500 €	131.250
		1.293.837	% 9,81	2014/05/30	5,2500 €	6.792.644
		1.318.837	% 10,00	2014/06/18	5,5000 €	7.253.604
NAFARROAKO RURAL KUTXA	1.648.547	494.564	% 30,00	2014/04/01	5,0507 €	2.497.894
		55.000	% 3,34	2014/05/26	5,2500 €	288.750
		109.855	% 6,66	2014/05/30	5,2500 €	576.739
		164.855	% 10,00	2014/06/18	5,5000 €	906.703
BANKINTER	5.769.915	1.153.983	% 20,00	2014/04/11	4,8130 €	5.554.120
		576.992	% 10,00	2014/05/02	5,0940 €	2.939.197
		454.059	% 7,87	2014/05/30	5,2500 €	2.383.810
		122.932	% 2,13	2014/05/30	5,2520 €	645.639
		142.096	% 2,46	2014/06/18	5,5000 €	781.528
		269.895	% 4,68	2014/06/18	5,5020 €	1.484.962
		165.000	% 2,86	2014/06/18	5,5040 €	908.160
BANCO SANTANDER	4.945.641	989.128	% 20,00	2014/04/15	4,8130 €	4.760.673
		494.564	% 10,00	2014/04/30	5,0000 €	2.472.820
		30.490	% 0,62	2014/05/27	5,2500 €	160.073
		464.074	% 9,38	2014/05/30	5,2500 €	2.436.389
BBVA	3.297.095	494.564	% 10,00	2014/06/18	5,5000 €	2.720.102
		449.864	% 13,64	2014/05/09	5,1730 €	2.327.146
		539.264	% 16,36	2014/05/09	5,1610 €	2.783.142
		307.583	% 9,33	2014/06/02	5,2990 €	1.629.882
		22.126	% 0,67	2014/06/02	5,2850 €	116.936
		136.500	% 4,14	2014/06/18	5,5020 €	751.023
193.209	% 5,86	2014/06/19	5,5250 €	1.067.480		
<b>Guztira</b>	<b>28.849.574</b>	<b>14.424.783</b>	<b>% 50,00</b>			<b>74.399.380</b>

<b>Batez besteko prezioa akzioko</b>	<b>5,1577 €</b>
--------------------------------------	-----------------

	14-api-30	14-mai-31	14-eka-30
Saldutako akzioen kop.	7.088.751	4.121.367	3.214.665
Saldutako akzioak, guztira	7.088.751	11.210.118	14.424.783
Gainerako akzioak, guztira	21.760.823	17.639.456	14.424.791

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 25ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

---

## **Galdera, “Proposamen fiskal integrala” lan-agiriari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Proposamen fiskal integrala” lan-agiriari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak planteatu duen zerga erreformaren inguruko zenbait gairi buruz (PES-00141). Hau erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak, abuztuaren 27ko bilkuran, planteatutako zerga erreforma dakarten lau lege proiektu onetsi zituen. Onetsi eta berehala,

lege proiektuak, behar zen dokumentazioarekin batera, Parlamentura igorri ziren izapidetzeko eta eztabaidatzeko.

Bestalde, gogorarazi behar da Nafarroako Gobernuak ekainaren 25ean zerga erreformaren proposamena aurkeztu zuela herritarren eta Foru Parlamentuko taldeen aurrean. Orduan lan-dokumentu batean aurkeztu zuen zerga erreforma, Parlamentuko eztabaidari ekiteko eta, horrela, amaierako dokumentuari buruzko adostasun handiagoa lortzeko asmoz. Parlamentuko taldeen arteko eztabaidarik ez zegoela ikusirik, Nafarroako Gobernuak zerga erreforma onetsi zuen goian aipatutako 4 lege proiektuen bidez. Proiektu horiek ekainean aurkeztu zen proposamenaren eduki berbera dute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko irailaren 25ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu



## **Galdera, animaliak babesteari eta ikuskizun publikoei buruzko foru araudian ezarritakoa betetzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, animaliak babesteari eta ikuskizun publikoei buruzko foru araudian ezarritakoa betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du informazioa eskatzeko, ea Nafarroako Gobernuak zer neurri ari den hartzen animalien babesari eta ikuskizun publikoei buruzko foru araudian ezarritakoa betetzen dela ziurtatzeko, animalien ganako tratu txarrak ekidite aldera (8-14/PES-00139). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Ikuskizun Publiko eta Josteta Jardueri buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legean eta Establezimendu, Ikuskizun Publiko eta Josteta Jardueren Katalogoa onetsi eta enpresa eta lokalen erregistroak arautzen dituen irailaren 13ko 202/2002 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, ez da lokal edo instalazio itxietan ez estali gabetan inolako ikuskizun publiko edo josteta-jarduera arrunt edo berezirik egiten alde aurretik jarduera eta irekitze lizentzia egokiak eskuratu gabe, eta tokian tokiko udalari dagokio lizentzia horiek ematea. Udalak lizentzia horietan zehatz-mehatz adie-

razi behar du zer jarduera egiten den lokal edo instalazioan.

Halaber tokian tokiko udalari dagokio administrazio-baimena ematea, jada jarduera eta irekitze lizentziez hornituta dauden lokaletan ikuskizun eta josteta-jarduera bereziak egin ahal izateko, baita osorik udal mugapean dauden bide publikoetan edo erabilera publikoko eremuetan halakoak egin ahal izateko ere.

Ez dute udalaren baimenik beharko ausazko jokoek eta zezen ikuskizunek, kasu guztietan, ez eta Nafarroako Foru Komunitateko udalerrri bat baino gehiago hartzen dituzten eremu edo ibilbideetan egiten diren jarduerak ere. Horrelakoei Nafarroako Gobernuak emanen die baimena.

Antolamendu hori, ikuskizun publikoak eta josteta-jarduerak nola egin eta haietan erabiltzen diren animaliak nola babestu arautzen duena, nahikotzat jotzen dugu, eta, jakina denez, aplikazio eremuan dauden guztiek bete behar dute; ez da tutoretza berezirik jarri behar antolamendu horren arauak bete daitezen, eta inola ere ez da hartu behar legez ezarritakoa ez den bestelako neurri hertsagarriarik. Arauak betetzen ez direnean zehapen-araubide egokia aplikatu behar da eta bidezkoak diren neurriak hartu behar dira.

Bestalde, erraz suma daiteke, ausazko jokoak eta zezen ikuskizunak alde batera uzten baditugu, Nafarroan egiten diren ikuskizun publiko ia guztiak udalaren lizentziaz eta baimenez egiten direla.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi



## **Galdera, udaldi honetan Nafarroako osasun publikoan ospitale-oheak, solairu erdiak eta operazio-gelak ixteari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, udaldi honetan Nafarroako osasun publikoan ospitale-oheak, solairu erdiak eta operazio-gelak ixteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du, jakite aldera, Nafarroako osasun-sistema publikoan uda honetan ehun bat ospitale-ohe itxi direla egiaztatuta, uda honetan itxitako oheen, solairu erdien eta operazio-gelen kopuru zehatza, erabaki horrek itzarotzerrendan izan duen eragina, langileen oporrak estaltzeko egindako kontratazioen maila eta indizea, eta udan irekita dauden oheen okupazio-indizea, aurreko urteetako datuekin alderatuta (8-14/PES-00144). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

#### **NAFARROAKO OSPITALEGUNEA**

1. Uda honetan itxitako oheen, solairu erdien eta operazio-gelen kopuru zehatza.

1.a. Itxitako oheak eta solairu erdiak.

2013an eta 2014an ohe batzuk itxi dira udan, batez ere kirurgiako jarduera programatua murriztu den heinean. Helburua da batez besteko okupazio indize egokienei eustea opor garaiko ohiko asistentzia-jarduerari kalterik egin gabe.

Ekaineko azken astean hasten da kirurgia saioak murrizteko prozesua, eta uda garai horrek irailaren bigarren hamabostaldira arte irauten du. Horrela, mediku eta erizainek errazago hartu ahal izaten dituzte beren opor egunak eta luzapenetan eta programa berezietan metatu zaizkien konpentsazioak.

Nafarroako Ospitaleguneko ospitale-oheen oraingo hornidura 2013ko garai berean izandakoaren ia berdina da, nahiz eta medikuntzako espezialitate batzuetan mugimenduak izan diren Ospitaleguneko A eta B zentroen artean, egokiago kokatzeko.

Baina ixteen aurreikuspenean aldaketak egin ohi dira, larrialdien presioak sortzen dituen unean uneko beharren ondorioz. Beraz, ospitale-oheen hornidura ez dator beti bat une bakoitzean zabalik dauden oheekin, gerta litekeelako unean uneko premien ondorioz aforoaz gaineko oheak ireki behar izatea, hau da, horniduraren barruan baina itxita egon ohi diren oheak.

Nafarroako Ospitaleguneko kirurgia zerbitzuak dauden erizaintza unitateetan planifikatu eta burutu dira itxierak.

Unitate hauek dira:

- NOG-A: N1 Unitatea (unitate osoa itxi da) eta H3 Unitatea (unitate erdia itxi da).
- NOG-B: GX Unitatea - Egonaldi Laburretarako Unitatea (unitate osoa itxi da), G4 Unitatea (54 oheetatik 14 itxi dira), M3 Unitatea (31 oheetatik 15 itxi dira).
- NOG-D: T5 Unitatea (52 oheetatik 28 itxi dira).

Hau izan da itxieren kronograma:

Unitatea	Uztailaren 5etik irailaren 15era bitartean		
	Uztailaren 5etik abuztuaren 4ra arte	Abuztuaren 4tik irailaren 7ra arte	Irailaren 7tik irailaren 15era arte
A-N1	32 ohe itxita		
A-H3	17 ohe itxita		
B-GX	18 ohe itxita		
B-G4	14 ohe itxita		
B-M3	15 ohe itxita		
D-T5	28 ohe itxita		

- 2014ko lehenengo aldian, uztailaren 5etik abuztuaren 4ra bitartean, 124 ohe itxi dira, unitate hauetakoak: N1(32), H3(17), G4(14), GX(18), M3(15) eta T5 (28).
- 2014ko bigarren aldian, abuztuaren 4tik irailaren 7ra bitartean, 110 ohe itxi dira, unitate hauetakoak: N1(32), H3(17), GX(18), M3(15) eta T5 (28).
- 2014ko hirugarren aldian, irailaren 7tik 15era bitartean, 82 ohe itxi dira, unitate hauetakoak: N1(32), H3(17), GX(18) y M3(15).

Nafarroako Ospitalegunean 2013an eta 2014an itxitako oheen kopuruen arteko aldea desberdina da aztertutako aldiaren arabera:

- Lehenengo aldian, uztailaren 5etik abuztuaren 4ra bitartean, Nafarroako Ospitalegunean 2014an 14 ohe gutxiago itxi dira 2013an baino. Alde hori NOG-Dn ohe gutxiago itxi izanari zor zaio.

- Bigarren aldian, abuztuaren 5etik irailaren 7ra bitartean, Nafarroako Ospitalegunean 2014an 3 ohe gehiago itxi dira 2013an baino. NOG-Dn ohe gutxiago itxi dira (-14), baina NOG-Ako H3 Unitatean ohe gehiago itxi dira (+17). Horrenbestez +3ko aldea dago NOG osoan.

- Hirugarren aldian, irailaren 7tik 15era bitartean, Nafarroako Ospitalegunean 2014an 25 ohe gutxiago itxi dira 2013an baino, eta arrazoia da irailaren 7an NOG-Dko ohe guztiak ireki direla (+28).

2014. urterako aurreikusi eta ezarritako itxtearen aldean aldaketak izan dira presio asistentzialaren eraginez, bereziki Larrialdi Zerbitzuan sortutako presioarengatik. Hona aldaketak:

- Uztailaren 22an, NOG-Bko G4 Unitatean itxitako 14 oheetatik 12 ireki ziren.

- Uztailaren 23an, artean itxita zeuden 2 oheak ireki ziren. Beraz, G4 Unitatean itxitako ohe guztiak berriro zeuden zabalik eta hala egon ziren abuztuaren 1era arte.

- Irekitako 14 oheak berriro itxi ziren abuztuaren 2an, eta abuztuaren 4ra arte egon ziren itxita.

- Abuztuaren 5ean, ezarritako itxiera-kronogramari jarraituz, behin betiko ireki ziren G4 Unitateko 14 oheak.

Hortaz, uztailaren 22tik irailaren 1era bitartean 28 ohe gutxiago itxi dira 2013an baino.

Orain arte ez da gaixo bat ere Nafarroako Ospitalegunetik beste zentro batera desbideratu ohe faltagatik.

#### 1.b. Itxitako operazio-gelak

Nafarroako Ospitalegunek 31 operazio-gela ditu eta horietatik 9 itxi dira uztailaren 1etik irailaren 15era bitartean.

- A Ospitalea: 10 operazio-gela ditu guztira, eta 3 itxi dira

- B Ospitalea: 13 operazio-gela ditu guztira, eta 4 itxi dira

- D Ospitalea: 8 operazio-gela ditu guztira, eta 2 itxi dira

2013an adina operazio-gela itxi dira 2014an.

2. Erabaki horrek itxarote-zerrendetan izan duen eragina.

Udaldian oheak ixten dira, funtsean, kirurgiako jarduera murriztu behar izaten delako, medikuen opor garaia izateagatik. Beraz, normala da horrek eragina izatea kirurgiako itxarote-zerrendan.

Zabalik segitzen duten operazio-geletan kirurgiako jarduera presakoenak eta lehentasun handieneko jarduera programatuak egiten dira; kirurgiako itxarote-zerrendan denbora gutxi ematen duten prozesuak dira.

2014ko uztailean ikusi dugu nola gaixo gutxiago sartu diren kirurgiako itxarote-zerrendan, kontsultetan ere jarduera gutxiago izan baita, baina gaixo horien kopurua ez da programatutako kirurgia-jarduera bezainbeste murriztu. Egoera horrek zuzenean eragiten dio itxarote-zerrendan dauden pertsonen kopuruari eta, bereziki, itxaron beharreko batez besteko egun kopuruari.

Kirurgiako batez besteko itxaronaldiaren gaine-ko eragina, beraz, zuzenean lotuta dago operazio-gelen udako itxierarekin eta presako prozesuen lehenespen klinikoarekin. Ziur aski eragin hori abuztuan ere gertatuko da, baina hurrengo hilabeteetan zuzenduko da, kirurgiaren planifikazioa normaltasunera itzultzen denean.

2014. urtean batez besteko itxaronaldia 95 egun naturalekoa izan da ekainean eta 106 egun naturalekoa uztailean (11 egun gehiago). Gehikuntza hori 2013koa baino apur bat txikiagoa da: 2013ko ekainean 134 egun natural izan ziren eta uztailean 146 (12 egun gehiago). Abiaburu gisa, batez besteko itxaronaldia iazkoa baino askoz laburragoa dugu, eta azken hiruhileko honetan berriro doituko ditugu kopuruak azken hilabeteetara.

2014an kirurgiako egiturazko itxarote-zerrendako gaixoak ekainean 7.924 izan dira eta uztailean 8.162 (238 gaixo gutxiago). 2013an, nahiz eta kirurgiako jarduera 2014an baino urriagoa izan, kirurgiako egiturazko itxarote-zerrendako gaixoak 8.343 izan ziren ekainean eta 8.258 (85 gaixo gehiago) uztailean. Kirurgiako batez besteko itxaronaldia bezala, nahiz eta kirurgiako egiturazko itxarote-zerrendako gaixoen kopuruak gora egin duten azken hilabeteetan, espero dugu kopuruok berriro normaltzea 2014ko azken hiruhilekoan. San Juan de Dios Ospitaleari esleitutako saioen murrizketa handiaren erruz, kirurgiako egiturazko itxarote-zerrendako kopuru absolutuak gora egiten ari dira azken hilabeteetan (kirurgia arloari esleitu-

tako aurrekontu-hornidura % 30 inguru murriztu da). Etengabeko arazketa administratiboa eta antzinatearen lehenespena direla medio, kirurgiako batez besteko itxaronaldia nabarmen laburtzea lortu dugu, eta bide berean ahalegintzen jarraituko dugu.

2014ko ekainean, programatutako 2.232 ebakuntza egin dira San Juan de Dios Ospitalearen eta Nafarroako Ospitalegunearen artean, eta uztailean 1.279 egin dira, hots, 953 ebakuntza gutxiago. Presako jardueran aldaketa gutxi izaten denez, programatutako jarduerari eta, beraz, kirurgiako batez besteko itxaronaldiari eragiten dio defizitak. Nabarmena izan da San Juan de Dios Ospitalean uztailean egin behar izan dugun operazio-gelen itxiera handia, eta oraingo datuak neurri handian horren ondorio dira, baina aurrekontu-arrazoiek behartuta egin dugu.

Azterketatik kanpo uzten baditugu San Juan de Dios Ospitaleko operazio-gelak, non saioak murriztu baitira aurrekontu-doikuntzen ondorioz, eta Nafarroako Ospitaleguneko kirurgia jarduerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu nola uztaileko itxierak askoz gutxiago izan diren. 2014ko uztailean Nafarroako Ospitalegunean 60 operazio-gela gehiago ireki ditugu 2013ko uztailean baino, kirurgia saioak % 15 gehiago izan dira, eta 2014ko ekainean 34 operazio-gela gehiago izan ditugu 2013ko hilabete berean baino. Bi hilabeteetan iaz baino 94 saio gehiago egin ditugu operazio-geletan; kirurgia saioen kopurua % 10 handiagoa izan da.

Aurreko urteetan bizi izandakoaren arabera joera espero dugu, eta, Nafarroako Ospitaleguneko kirurgia jardueraren gehikuntza etengabea ikusirik, uste dugu kirurgiako batez besteko itxaronaldia uda hasierako zifretara itzuliko dela 2014ko azken hiruhilekoan.

3. Langileen oporrak estaltzeko egindako kontratazioen maila eta indizea.

Hona hemen taula batean kontratazioen maila, estamentu profesionalen arabera, lanaldiei erreparatuta.

2013/6/15etik 2013/7/31ra eta 2014/6/15etik 2014/7/31ra bitartean

Estamentua	Lanaldiak			
	2013	2014	Aldea	Aldea, ehunekotan
Administrari laguntzaileak	2381,82	2184,81	-197,01	-0,08
Osasun laguntzaileak	7960,71	9231,51	1270,80	0,16
Zeladoreak	2813,07	3215,17	402,09	0,14
Osasun diplomadunak	14688,79	13141,49	-1547,29	-0,11
Fakultatibo espezialistak	296,00	345,00	49,00	0,17
Administrazioko Kudeaketa	202,00	206,00	4,00	0,03
Administrari ofizialak	1,00	22,00	21,00	21,00
Bestelako osasun fakultatiboak	180,50	191,00	10,50	0,06
Osasun teknikariak	2788,47	2467,75	-320,72	-0,12
	31312,37	31004,73	-307,63	-0,01

Ikus daitekeenez, ordezkapenen maila iazkoaren oso antzekoa da.

4. Udan irekita dauden oheen okupazio-indizea, aurreko urteetako datuekin alderatuta.

Uztaila				Abuztua			
2014		2013		2014		2013	
Oheak	Okupazio ind.	Oheak	Okupazio ind.	Oheak*	Okupazio ind.	Oheak	Okupazio ind.
869,20	% 76,20	887,00	% 71,40	898,00	% 75,50	900,80	% 69,00

\* txostena aurkeztu den egunean, abuztuaren 28ra arteko datuak eman daitezke

2013ko hilabete berarekin alderatuta 2014ko uztailean okupazioa % 4,8 handiagoa izan da, eta abuztuan % 6,5 handiagoa. Ohe gehiago okupatu dira ospitaleratze-jarduera gehiago egin delako. Horrexegatik itxi dira aurreko urtean baino ohe gutxiago.

#### TUTERAKO REINA SOFIA OSPITALEA

##### 2. SOLAIRUA

Han daude: Kirurgiako Kontrola: 29 ohe.  
Traumatologiako Kontrola: 28 ohe.  
Kirurgiako Egonaldi  
Laburretarako Unitatea: 6 ohe.  
Guztira, 63 ohe.

1. Kirurgiako Kontrola eta Traumatologiako Kontrola batu, eta 57 oheak 30era murriztu dira, baita langileria horretarako doitu ere, uztailearen 21etik irailaren 2ra bitartean, 6 astean.

– Aurreztutako dirua astean: 10.207 €

– 2. solairua batuta aurreztutakoa: 61.242 €

#### KIRURGIAKO EGONALDI LABURRETARAKO UNITATEA:

2. Kirurgiako Egonaldi Laburretarako Unitatea itxita egon da 10 astean.

– Aurreztutako dirua astean: 2.259,8 €

– KEL unitatean aurreztutakoa: 22.598 €

##### 3. SOLAIRUA

Han daude: Espezialitateetako Kontrola: 27 ohe.

Barne Medikuntzako Kontrola: 27 ohe.

Guztira, 54 ohe.

3. Hirugarren solairuko unitateko 54 oheak 40ra murriztu dira, baita langileria horretarako doitu ere, ekainaren 23tik uztailearen 21era bitartean, 4 astean.

– Aurreztutako dirua astean: 5.067,5 €

– 3. solairuan aurreztutakoa: 20.270 €

ETXEKO OSPITALIZAZIOA:

4. Etxeko Ospitalizaziorako izaten diren 21 oheak 14ra murriztu dira ekainaren 15etik irailaren 15era bitartean, 13 astean.

– Aurreztutako dirua astean: 708,84 €

– Etxeko Ospitalizazioan aurreztutakoa: 7.088,4 €

Guztira: 111.198,4 €

### MURRIZKETA UNITATEKA

UNITATEA	OHEEN KOP. GUZTIRA	KENDUTAKO OHEAK	ALDIAK	EGUN KOP.
KELU	6	6	07/01 - 09/15	77
2. SOLAIRUA	57	27	07/21 - 09/07	49
3. SOLAIRUA	54	18	06/23 - 07/21	28
E.O.	20	6	06/15 - 09/15	92


### MURRIZKETA ALDIAK

ALDIAK	MURRIZTUTAKO UNITATEA	UNITATEAN KENDUTAKO OHEAK	KENDUTAKO OHEAK, GUZTIRA	EHUNEKOA, GUZTIZKOAREN GAINEAN	OSPITALEKO OHE ERABILGARRIAK
06/15 - 06/23	E.O.	6	6	% 3,21	181
06/24 - 06/30	E.O.	6	24	% 12,83	163
	3. SOLAIRUA	18			
07/01 - 07/21	E.O.	6	30	% 16,04	157
	3. SOLAIRUA	18			
	KELU	6			
07/22 - 09/07	E.O.	6	39	% 20,8	148
	2. SOLAIRUA	27			
09/08 - 09/15	E.O.	6	12	% 6,42	175
	KELU	6			

\*Ospitaleak guztira 187 ohe ditu

Okupazio indizea  
TUTERAKO REINA SOFIA  
OSPITALEA

	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.
2014	90,09	72,78	72,61	62,71	62,55	66,74	64,69					
2013	67,62	72,99	72,04	69,63	64,76	68,60	62,78	63,72	71,15	71,69	93,99	63,82
2012	71,75	75,10	73,37	69,69	67,71	62,54	61,83	69,54	65,82	66,68	69,34	59,42



LIZARRAKO GARCÍA ORCOYEN OSPITALEA

1.- Uda honetan itxitako oheen, solairu erdien eta operazio-gelen kopuru zehatza

Uztailean eta abuztuan ospitalizazioko 16 ohe itxi dira solairuan.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehen erdian Etxeko Ospitalizazioko 10 ohe ere itxi dira.

Udako hilabeteetan, anestesista baten faltan, ez da 3. operazio-gelako programaziorik egon (operazio-gela horren edukieraren % 60 programatu ohi da).

Uztailean 258 ebakuntza egin dira guztira, horietatik 159 programatuak eta 99 presakoak. 2013ko uztailean 205 ebakuntza egin ziren, horietatik 149 programatuak eta 55 presakoak.

2.- Erabaki horrek itxarote-zerrendetan izan duen eragina

2014ko ekainera arte egindako ebakuntzak aztertuta, ikus dezakegu batez beste hilean 171 izan direla ebakuntza programatuak. Orain ditugun

datuekin, itxarote-zerrendak 12 gaixo gehiago dituela kalkula dezakegu.

Nabarmendu behar da udan, gaixoen eskaerei erantzunez, gehitu egin direla kirurgia handi anbulatorioko ebakuntzak, ospitaleratu beharrik gabekoak.

3.- Langileen oporrak estaltzeko egindako kontratazioen maila eta indizea

Datua zehaztea zaila bada ere, zenbatespena % 75-80 ingurukoa izan liteke.

4.- Udan irekita dauden oheen okupazio-indizea, aurreko urteetako datuekin alderatuta

Ditugun datuekin, baieztatu dezakegu kopuruak aurreko urtekoen parekoak direla: % 68 inguruko okupazioa, eta 2013an, berriz, % 70ekoa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín



**Galdera, Nafarroako Parlamentuaren erabaki bat betetze aldera abiarazitako ekimenei buruzkoa. Erabaki horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Osasunbidearen osasun zentroetan zerbitzatzen den janariaren kalitatea dela-eta etengabeko ebaluazioa egin dezan.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuaren erabaki bat betetze aldera abiarazitako ekimenei buruzkoa. Erabaki horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Osasunbidearen osasun zentroetan zerbitzatzen den janariaren kalitatea dela-eta etengabeko ebaluazioa egin dezan. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera hau egin du: “-Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen ebaluazio jarraitu bat egin dezan, satisfazio-inkesten bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-zentroetan ematen den janariaren kalitateari buruz. Zer ekimen abiarazi da erabaki hori betetzeko? Egin al dira inkesta horiek? Atera al da ondoriorik?” (8-14PES-00149). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Parlamentuko iragan ekaineko Osoko Bilkuran mozioa bozkatu zenean, jakinarazi genuen Eriaren Arretarako eta Kalitaterako Zuzendaritza 2013. urtetik lanean ari zela ONOZen sumatutako kalitatea neurtzeko proiektu batean, eta helburua zela, zerbitzuen kalifikazioa lortzeaz gain, neurketa horien bidez ikastea, alderdi zehatzak hobetzeko, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak erabiliz. Eta iragarri genuen ONOZ jada lanean ari zela arreta espezializatuko hiru zentroetan ospitaleratuek sumatutako konfortaren kalitatea aztertzen, elikaduraren ingurukoak azpimarratuz, noski.

Adierazi genuen, gainera, bi inkesta sorta egin nahi genituela zentro bakoitzean, solairuak ausaz aukeratuta, inkesta sorta bat aurtengo ekainean eta beste bat azaroan, eta azpimarratu genuen ez genuela maiztasun handiagoaren beharrik ikusten, zenbait arrazoiengatik:

– Erabiliko genuen laginketaren bidez balorazioa zentro bakoitzaren osotasunera estrapolatuko genuelako, ospitaleratuen konfortaren indargune eta ahulguneen ikuspegi argia lortzeko, hobekuntzarako ekintzak planteatzeari begira, horixe baitzen neurketaren funtsezko xedea.

– Eta bigarren laginketa bat egingen genuelako azken sei hilekoan, ezar zitezkeen hobekuntza-ekintzen eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko.

Zalantzarik gabe gogobetetasun-inkestak etengabeko hobekuntzarako tresnak dira, baina, tresna kuantitatibo guztiekin gertatzen den bezala, ematen duten informazioaren norainokoa mugatua da. Izan ere, hobetu beharreko puntuak zein diren erakusten dute, eta gero horietan sakondu behar da beste tresna batzuk erabiliz, normalean kualitatiboak.

Beraz, zure informazio eskaerari erantzunez:

– Departamentu honen ekimena izan da, joan zen ekainean iragarri genuen bezala, ospitaleratuek sumatzen duten konfortaren kalitatearen azterketa abian jartzea arreta espezializatuko hiru zentroetan.

– Lehenengo inkesta sorta egin da eta bigarrena azaroan egitekoa da, iragarri genuen bezala.

– Ezin dugu ondoriorik atera bigarren inkesta sortaren emaitzak eskuratu arte.

Oraindik ezin da behin betiko txostenik eman, ezta, beharrezkoa balitz, hobekuntzarako jarduketarik proposatu ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko irailaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín



## **Galdera, NA-5100 (Garinoain-Leotz), NA-5110 (Puiu-Lergako gaina), NA-5154 (Uzkieta) eta NA-5163 (Santsoain) errepideen konponketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, NA-5100 (Garinoain-Leotz), NA-5110 (Puiu-Lergako gaina), NA-5154 (Uzkieta) eta NA-5163 (Santsoain) errepideen konponketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du NA-5100 (Garinoain-Leotz), NA-5110 (Puiu - Lergako gaina), NA-5154 (Uzkieta) eta NA-5163 (Santsoain) errepideen konponketari buruz (PES 143). Hau erantzun dio Sustapen Departamentuak:

1.- Lehen galdera: Noiz ekinen zaio errepide horiek arian-arian konpontzeari?

Errepideak modu sistematiko eta jarraituan kontserbatzen eta konpontzen dira, nola dauden eta egoera horrek erabiltzaileen segurtasunari eta erosotasunari nola eragiten dien kontuan harturik. Hala, segurtasunari eragiten dieten presako eta unean uneko jarduketak lehenesten dira, funtzionaltasunarekin eta erosotasunarekin zerikusia duten jarduketa orokorragoen gainetik.

Zehazki, aipatutako errepideetan konponketak egiten hasi dira iragan ekainean, zoruetan eta drainatzeetan, eta hiru hilabeteko iraupena dute gutxi gorabehera. Obra horiek ia osorik bukatuta daude, errepideetako markak berriz pintatzea izan ezik, lan hori atzeratu egin baita eguraldi txarraren ondorioz.

2.- Bigarren galdera: Ba al dago konponketak hasteko egunik?

Aurrean esan bezala, obrak ia bukatuta daude.

3.- Horri buruzko foru agindu bat onesteari dagokionez:

Ez da ildo horretan berriazko foru agindurik onetsi, aipatutako errepideetako konponketa obra

guztiak, normala denez, errepideak zaintzeko lan arrunt eta ohikoen barruan egin direlako, "Tafallako Errepideen Zainketa Zentroko zaintza integrala, 2012-2015" kontratuaren babesean.

4.- Zenbat baliabide ekonomiko eta giza baliabide aurreikusi du horretara bideratzea 2014an zehar? Eta 2015ean zehar?

Lan horretan jarri diren langileak, "Tafallako Errepideen Zainketa Zentroko zaintza integrala, 2012-2015" kontratua kudeatzen duten Errepideak Zaintzeko Zerbitzuko langileez gain, behar direnak dira, alegia, mota horretako lanak egiteko erabili ohi direnak (zorua konpontzeko eta nahastura bituminoso beroa emateko langileak, bide-markak berriz pintatzen dituztenak, arekak egiten dituztenak, belar-sastraken garbiketak eta mozketak egiten dituztenak, etab.), errepideetako segurtasun eta erosotasun baldintza egokiak mantentzen dituztenak errepide bakoitzeko trafikoaren arabera. Langileen kopurua aldatu egiten da egin beharreko obraren tamainaren eta izaeraren arabera.

2014ko ekainetik gaur arte konponketa horietara bideratu diren baliabide ekonomikoak 243.912,37 euro dira, konponketa lanak "Tafallako Errepideen Zainketa Zentroko zaintza integrala, 2012-2015" kontratuko prezio unitarioen arabera baloratuta.

Goian azaldutako lan guztiak bukatuta daude, bide-markak berriz pintatzea izan ezik. Lan horiek atzeratu behar izan dira eguraldi txarrarengatik.

Gogora ekarri behar da oraingo lan horiei gehitu behar zaizkiela 2014ko aurreko hilabeteetan egindako unean uneko lanak, 84.989,84 eurotan baloratuak. Atzerago jotzen badugu, 2009tik 2013ra bitartean, bi urte horiek barne, 441.358,37 euro joan ziren Orbaibarko errepide horietara (NA-5100, NA-5110, NA-5113, NA-5153, NA-5154, NA-51-56, NA-5161, NA-5162 eta NA-5163). Beraz, 2014an gastatu diren 328.902,21 euroak gehituta, guztira 770.260,58 euro jarri dira, hau da, urtean batez beste 128.376,76 euro.

2015. urterako ez da diru kopuru zehatzik aurreikusi berriaz errepide horietara bideratzeko. Errepideak Zaintzeko Zerbitzuak urtero egiten duen programazioaren barruan, eta errepideen egoeraren arabera, errepideak funtzionaltasun eta

segurtasun egoera egokian mantentzeko zenbat diru behar den zehazten joanen da.

5.- Egoera aztertze aldera departamentuak eta ukitutako toki entitateek izandako bileren xehetasunak jaso nahi ditugu.

Egindako zainketa-obrei buruz ez da berariazko bilerarik izan toki entitateekin. Errepideak zaindu eta mantentzeko obrek eragiten dieten toki entitate, enpresa edo bestelako erakundeei informazioa edo komunikazioak ematea kasuan kasuko zainketa zentroko funtzionarioen egitekoa

izaten da (oraingoan Tafallako Zainketa Zentrokoe-na), xehetasun handiagoz ezagutzen dituztelako errepideetako beharrak eta erabilerak: eskola garraioaren ordutegiak, tokian tokiko industriak, udalerriko obrak etab. Errepideak Zaintzeko Zerbitzuak egoki irizten badio edo toki entitateek hala eskatzen badute, goiko mailan, behar adina bilera proposa daitezke erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko edo obrak egin bitartean ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko.

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## Galdera, Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileei buruz (8-14/PES-00150). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

1.- Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek ba al dakite zer-nolako edukia eta forma duten nazioarteko adopzioarako entitate lankideen eta erabiltzaile diren pertsonen arteko harremanek?

Bai. Zerrenda aplikatzekoa den araudiari eta aldeek izenpetzen duten kontratuari egokitu behar zaie.

2.- Ba al dakite entitate lankideen erabiltzaileak informatuta ote dauden beren norbanako-espedientearen gaineko guztiari buruz eta sinatutako kontratuen baldintzei buruz?

Bai. Erabiltzaileek, gainera, kontratu bat sinatzen dute, zeinak bi aldeak behartzen baititu. Kontratuan zerbitzua emateko baldintzak ezartzen dira.

3.- Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek arlo horretan baliatzen den kontusail bakoitzaren eta zenbatekoaren berri ba al dute?

Ez da ulertzen nori buruzkoa den galdera. Nolanahi ere, Nafarroan kreditatuta dauden

NAGELek urtero kontabilitate-auditoria bat aurkezten dute.

4.- Frogen bidez al dakite familia erabiltzaileei adopzio prozesu osoan zehar egindako gastuak aurkeztu eta behar bezala zehazten ote dizkieten nazioarteko adopzioarako entitate lankideek?

Bai. Nolanahi ere, kontratu bidezko harremana NAGELaren eta adopzio-familiaren artean egiten da. Harreman hori izenpetzen duten kontratuari lotu behar zaio.

5.- Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek ba al dakite hitzartutako prestakuntza-zikloak betetzen ote diren eta nazioarteko adopzioarako entitate lankideak saiatzen ote diren familiak edo unitate gurasobakarrak euren artean harremanetan egon daitezten?

Galdera ez da ulertzen. Nolanahi ere, izenpetutako kontratuan aldean artean ezarritako bete-beharrek (kasu honetan NAGELen eta adopzio-familiaren arteko kontratuaren ezarritakoak) haiek baizik ez dituzte behartzen.

6.- Beste autonomia erkidego batzuetako nazioarteko adopzioarako entitate lankideek –Nafarroako Foru Komunitatekoek jarduten duten herrialde beretan lan egiten dutenek– adopzio-prozesu azkarragoak dauzkatela esateko ebidentziarik ba al du Gizarte Politiketako Departamentuak?

Ez dago azkartasun handiagorik NAGEL bera duten autonomia erkidego batzuetan edo bestetan. Ez daukagu halakorik jasota, eta ezin da inguruabar hori gertatu.

7.- Baiezkoan, departamentuaren ustez, zer arrazoi dago prozesu horiek azkarrago egiteko?

Gorago erantzun dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, Gizarte Politiketako Departamentuak Adopziorako Entitate Laguntzaileen gainean egiten duen kontrol eta ikuskatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gizarte Politiketako Departamentuak Adopziorako Entitate Laguntzaileen gainean egiten duen kontrol eta ikuskatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz

erantzuteko galdera egin du Gizarte Politiketako Departamentuak Adopziorako Entitate Laguntzaileen gainean egiten duen kontrol eta ikuskatzeari buruz (8-14/PES-00151). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

Galdera ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuaren ingurukoa da, eta dekretu hori indargabeturik dago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileen tarifei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileen tarifei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nazioarteko Adopzio-

rako Entitate Laguntzaileen tarifei buruz (8-14/PES-00152). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

Galdera ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuaren ingurukoa da, eta dekretu hori indargabeturik dago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek lankidetzaren kontzeptuan jasotzen dituzten kopuruei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek lankidetzaren kontzeptuan jasotzen dituzten kopuruei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz

erantzuteko galdera egin du Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek lankidetzaren kontzeptuan jasotzen dituzten kopuruei buruz (8-14/PES-00153). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

Galdera ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuaren ingurukoa da, eta dekretu hori indargabeturik dago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, Foru Administrazioa Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileez baliatzearen arrazoiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Foru Administrazioa Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileez baliatzearen arrazoiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Foru Administrazioa Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileez baliatzearen arrazoiei buruz (8-14/PES 154). Hau da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

Foru Administrazioak zergatik jotzen du nazioarteko adopziorako entitate lankideengana,

nafarrei zerbitzu hori berak eskusibotasunez eman behar?

Hori erabakitzea ez dago Foru Komunitateko Administrazioaren esku, ezta Estatuko Administrazioaren esku ere.

Jatorrizko herrialdeek erabakitzen dute, bakoitzak bere legerian, nola izapidetu behar diren adopzioak, eta herrialde batzuek nazioarteko adopziorako entitate laguntzaileen bidez izapidetutakoak soilik onartzen dituzte.

Nazioarteko adopziorako erakunde laguntzaileek ezean, arauak agintzen dute protokolo publikoan izapidetu daitezela adopzioak, Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez.

Noiz ezarri zen lankidetzaren sistema hori? Zer metodologia baliatzen zen lankidetzaren misto horren aurretik?

Lehenik, gorago azaldu den bezala, esan beharra dago ez gairela gure eskumeneko erabaki bati buruz ari.

Bigarrenik, sistema hori hor dago aplikatu beharreko arauak hura arautu zuenetik (Hagako Hitzarmena, 1993ko maiatzaren 29koa).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an.

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

---

## **Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek bete behar dituzten oinarri arautzaileei eta sinatzen dituzten hitzarmenen edukia-ri buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek bete behar dituzten oinarri arautzaileei eta sinatzen dituzten hitzarmenen edukia-ri buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nazioarteko Adopziorako Entitate Lankideek bete beharreko oinarri arautzaileei buruz eta sinatzen dituzten hitzarmenen edukia-ri buruz (8-14/PES-00156). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

1.- Gizarte Politiketako Departamentuak eta adopzioaren esparruan eskumena duten haren menpeko erakundeek ba al dakite zer-nolako edu-

kia duten nazioarteko adopziorako entitate lankideek adingabearen jatorrizko herrialdearekin sinatzen dituzten hitzarmenek?

Ez.

2. Departamentuak ezarri eta nazioarteko adopziorako entitate lankideek bete beharreko oinarri arautzaileen barruan:

2.a) Erakunde eskudunek kontuan hartzen al dituzte Hagako Hitzarmenaren arabera adingabeari jatorrizko herrian eskaini behar dizkioten bermeak?

Bai.

2.b) Ba al daki zein diren nazioarteko adopziorako entitate lankideek lan egiten duten herrialdeetan baliatzen dituzten irizpideak, eta horiei buruzko idatzizko ziurtapenik ba al du?

Galdera ez da ulertzen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek arauak eta entitate horiek kreditatuta daudeneko jarduerak betetzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek arauak eta entitate horiek kreditatuta daudeneko jarduerak betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko Nazioarteko Adopziorako Entitate Lankideek arauak betetzen dituzten eta zein jardueratarako dauden kreditatuta (8-14/PES-00157). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroan kreditatuta dauden nazioarteko adopziorako entitate lankideek zorrotz bete al dituzte Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunak ematen dituen arau, jarraibide eta gidalerroekin bat haien kreditazioaren xede diren arau eta jarduerak?

Guk jasota daukagunaren arabera, bai.

2. NAGELeK erraztu al dituzte Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egiten dituen ikuskaritza eta kontrol jarduketak?

Gaur arte Ikuskapen Zerbitzuak ez du galderan aipatutakoaren gisako jarduketarik egin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, adingabearen jatorrizko herrialdeetako arau- edo lege-aldaketek Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek egiten duten lanean dauzkaten ondorioei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, adingabearen jatorrizko herrialdeetako arau- edo lege-aldaketek Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileek egiten duten lanean dauzkaten ondorioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko adingabeen jatorrizko herrialdeetan izandako arau eta lege aldaketek zer eragin eta ondorio izan dituzten, Foru Komunitateko Nazioarteko Adopziorako Entitate Lankideek egiten duten lanari dagokionez (8-14/PES-00158). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

1.- Adingabeen jatorrizko herrialdeetan izandako arau eta lege aldaketek zer eragin eta ondorio izan dituzte, Nazioarteko Adopziorako Entitate Lankideek egiten duten lanari dagokionez?



Batzuetan, protokolo publiko bidez baizik izapidetzen ez zituzten herrialde batzuek izapidezak nazioarteko adopzioarako entitate lankideei ere zabaldu dizkiete, eta alderantziz.

Aldaketak, normalean, alderdi estrukturalagoi eta sakonagoi buruzkoak izaten dira, ez nazioarteko adopzioarako entitate lankideei buruzkoak. Herrialde bakoitza eskuduna da bere herritarrentzako adopzio-arauei dagokienez.

2.- Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, adingabeen jatorrizko herrialdeetan sustatutako aldaketek justifikatu egiten al dituzte Nafarroan nazioarteko adopzioaren arloan gertatutako atzerapenak?

Adopzioaren arloko atzerapenak itxarote-aldiei buruzkoak izanen dira. Jatorrizko herrialdeetan gertatutako aldaketek eragina dute adopzio-eskari

guztietan, bai Nafarroan, bai gainerako autonomia erkidegoetan, bai beste herrialde batzuek eskutatutako adopzioei dagokienez ere.

Atzerapenak handiagoak dira jatorrizko herrialdeak adopzio batzuetarako muga batzuk ezartzen dituzenean (batzuetan soilik adopta daitezke premia bereziak dituzten haurrak, anai-arreben taldeak, adin jakin batetik gorako haurrak, eta abar), edo beren herrialdean adoptatzeko aukera itxi ere egiten dutenean, normalean herritarren ongizate-mailak gora egin izatearen ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileen eginkizunei eta jarduketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileen eginkizunei eta jarduketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nazioarteko Adopzio-

rako Entitate Laguntzaileen eginkizunei eta jarduketari buruz (8-14/PES-00159). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

Galdera ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretuaren ingurukoa da, eta dekretu hori indargabeturik dago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, onetsitako lege-aldaketak Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileei aplikatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, onetsitako lege-aldaketak Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileei aplikatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nazioarteko Adopziorako Entitate Laguntzaileen tarifari buruz (8-14/PES-00160). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

-2-3.-1. 2. eta 3. galderei jada 8-14/PEI-280 galderaren erantzunean erantzun diegu. Erantzun hori transkribatu dugu hemen.

Lehena. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 75.1 artikulua ezartzen zuen adingabeen adopzio nazionalean lehentasuna izanzen zutela seme-alabarik gabeko familiek.

Bigarrena. Martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legeak abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatu zuen, eta 75. artikulutik kendu zen seme-alabarik gabeko bikoteek adopzio nazionalerako lehentasuna izatearena.

Xedapen iragankorrak honakoa ezartzen zuen: "Foru lege hau indarrean sartzerakoan adoptatzeko zerrendetan inskribatuta zeuden pertsonen kontserbatuko dute momentu horretan zeukaten lehentasun-hurrenkeria."

Xedapen iragankorrean aipatutakotik, uler liteke aldaketak indarra hartzeko unean zerrendetan zeuden pertsonen zerrenda horietako lehentasun-hurrenkerari eusten ziotela, eta horrekin seme-alabarik gabeko bikoteek adoptatzeko lehentasuna izaten jarraitzen zutela seme-alabarik gabeko

bikoteen aurretik, hartara baliorik gabe utzita egindako aldaketaren edukia –izan ere, haren bitartez bilatzen zen seme-alabarik gabeko familien lehentasuna kentzea–.

Hirugarrena. Martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legearen bitartez, xedapen iragankorra aldatu zen, eta lehenengo lerrokada honela geratu zen: "Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Adopzioen Erregistroan inskribaturik dauden eta Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak adopziorako egokitasun psikologikoa eta soziala aitortu dien seme-alabarik gabeko familiek 0 eta 2 urte bitarteko haurrak adoptatzeko lehentasunari bi urtez eutsiko diote, foru lege hau (2013ko martxoaren 28a) Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita (2014ko martxoaren 26an argitaratu zen).

Xedapen iragankorren testu berriak honakoa suposatzen du: a) Modu iragankorrean eutsi egiten zaio 0 eta 2 urte bitarteko adingabeen adopzio nazionalerako lehentasunari, bi inguruabar betetzen direnean: lehenik, seme-alabarik gabeko bikote bat izatea, eta, bigarrenik, erabaki izatea adopziorako egokitasuna dutela 13/2013 Foru Legeak indarra hartu baino lehen –2013ko martxoaren 28an hartu zuen indarra–; b) data horretatik aurrera, seme-alabarik gabeko familiek ez dute inongo lehentasunik 0-2 urteko adingabeak adopzio nazionalean adoptatzeko, ezta data hori baino lehenago ere, baldin eta xedapen honek onura egiten dien familiek jada adopzio prozesua amaitu badute.

4.- Arestian azaldutako lege-aldaketa horiek guztiak aplikatu al dira Nazioarteko Adopziorako Entitate Lankideetan?

Aldatutako 75. artikulua soilik adopzio nazionalari buruzkoa zen, eta horretan NAGELek ez dute esku hartzen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, 1051/2013 Errege-dekretuan oinarritutako arau-aldaketei buruzkoa eta mendetasunaren arloan diharduten pertsonen gaineko Europako araudia aldatzeko aurreikuspenei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 1051/2013 Errege-dekretuan oinarritutako arau-aldaketei buruzkoa eta mendetasunaren arloan diharduten pertsonen gaineko Europako araudia aldatzeko aurreikuspenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1051/2013 Errege Dekretuan oinarritutako arau-aldaketei buruz eta mendetasunaren arloan lan egiten dutenei buruzko Europako araudia aldatzeko aurreikuspenari buruz (8-14/PES-148). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

1. Gizarte Ongizatearen Nafarroako Kontseiluaren oniritzia zeukan foru aginduaren zirriborroak beste arau-aldaketarik jasotzen al du, abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua oinarri?

Urtarrilaren 18ko 62/2013 Foru Aginduaren aldaketak, gaur egun izapidetzen ari denak, eragina du soilik foru agindu horretako 6. eta 7. artikuluetan. Artikulu horietan dira mendetasun egoeran

dauden pertsonen familiarteko zaintzaileei eskatzen zaizkien baldintzak arautzen dituztenak.

Abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretuko 12. artikuluan ezarritakoaren arabera aldaketa.

Gizarte Ongizatearen Nafarroako Kontseiluaren aldeko irizpena zeukan zirriborroak ez du beste arau-aldaketarik jasotzen, abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua oinarri.

2. Nafarroako Gobernuak ziur al daki Europako araudia 2015ean alda daitekeela eta, horren arabera, mendetasunaren arloan lan egiten dutenek titulazio jakin bat lortu beharko dutela nahitaez?

Ez dago jasota aldaketak egiteko aukerarik dagoenik.

Ez dugu planteatutako gaiari buruzko inongo informaziorik jaso, ez Osasuneko, Gizarte Gaietako eta Berdintasuneko Ministerioaren bitartez, ez Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMERSO) bitartez, ez eta autonomia erkidegoen presentzia duen mendetasunaren arloko partaidea organoaren bitartez ere –Mendetasunaren dutenen Autonomiarako eta Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseilua–.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

**Galdera, Musikako Gradu Profesionaleko eta Goi Mailako piano-jotzaile erreperitistaren espezialitatean aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak egiteko erabilitako irizpideei buruzkoa eta Estatuko Gobernuak musikako goi mailako irakaskuntzei eta irakaskuntza profesionalei dagozkien espezialitate berrietako gaitegiak argitarara eman ditzan egin diren kudeaketei buruzkoa.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Marisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Musikako Gradu Profesionaleko eta Goi Mailako piano-jotzaile erreperitistaren espezialitatean aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak egiteko erabilitako irizpideei buruzkoa eta Estatuko Gobernuak musikako goi mailako irakaskuntzei eta irakaskuntza profesionalei dagozkien espezialitate berrietako gaitegiak argitarara eman ditzan egin diren kudeaketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-talderari atxikitako foru parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du piano-jotzaile erreperitista espezialitate-rako aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak egitearekin lotutako zenbait gairi buruz (8-14/PES-00138). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak:

– Planteatutako gaiei erantzun baino lehen, zehaztu beharra dago galderan “piano-jotzaile erreperitista” gisa aipatzen dena, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendak egiteari dagokionez, ez dela horrela errealitatean; izan ere, Hezkuntzako kontseilari honen foru agindu baten bidez sortutako profil bat da; izan ere, foru agindu horren bidez, irakasleek frogatu ditzaketen berriazko eskakizunak zehaztu eta haiek egiaztatzekeo prozedura ezarri eta piano-jotzaile erreperitistarentzako eskakizunak sortzen dira.

– Aipatutako profila egiaztatzeari begira, bi deialdi egin dira: bata Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren otsailaren 28ko 509/2014 Ebazpenaz onetsia, zeinaren bidez piano-jotzaile erreperitistaren profila

egiaztatzekeo proba egiteko deialdia onetsi baitzen; eta bestea, aurrekoak profil horren beharrianak ez zituela asetzen ikusita, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren ekainaren 30eko 1628/2014 Ebazpenaz onetsia, zeinaren bidez dei egiten zaie Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak kudeatzen dituen musikako ikasketen profesionalen eta goi mailako ikasketen piano-espezialitateetako izangaien aldi baterako kontrataziorako zerrendetan daudenei piano-jotzaile erreperitistaren profila egiaztatzekeo proba bat egitera. Ebazpen horien edukira jotzea gomendatzen dugu.

– Nabarmentzekoa da aipatutako profila sortzea eta hura egiaztatzekeo deialdia egitea irakasle ez-unibertsitarioen mahai sektorialeko negoziatzaioaren xede izan zela 2014ko hasierako bi saio-tan.

– Profil horren egonkortasunari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 11ko 32/2013 Foru Aginduaren arabera funtzionarioaren edo aldi baterako kontrataziorako izangaiaren inguruabar pertsonal baten gisara egituratuta dagoenez, eutsi egingen zaio profila egiaztatuta duten langileak dauden bitartean.

– Hezkuntza Departamentuak gai-zerrendak onesteko egin dituen kudeaketei dagokionez, eta alde batera utzi gabe dakizunez Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegorako gaiak, irakaskuntza profesionaletarakoak, otsailaren 15eko ECD/310/2002 Aginduaren bidez onetsita daudela, Musikako eta Arte Eszenikoetako Kate-dradunen Kidegoko gai-zerrendeak dagokionez, eta kudeaketa pertsonalez edo/eta hitzezkoez harantzago, Hezkuntza Departamentuak idazki bat igorri zion Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari 2013an, eskatuz Konferentzia Sektorialeko Langileen Batzordeko gai zerrendan sar zedila aipatutako kidegora sartzeko sistemaren zehaztapena, bai eta Goi Mailako Kontseilarioko plantilla egoki hornitzeko bidea emanen duten gai-zerrenden onespina ere. 2014ko maiatzean, Langileen Batzordeko aipatutako bileran, Ministerioari berretsi

zitzaion kidego horretara sartzeko bidea arautzeko beharra zegoela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 24an

Hezkuntzako kontseilaria: Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, balantza fiskalei buruz Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egin duen txostenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, balantza fiskalei buruz Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egin duen txostenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 5eko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin bat du, 2014ko uztailaren 24ko 2100 sarrera-zenbakia duena, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak balantza fiskalei buruz egindako txostena dela eta (8-14/PES-00142). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

1. Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen txostena egiteko erabilitako metodologiari buruz.

Balorazio orok egitate zalantza gabe bat eduki behar du abiapuntu: balantza fiskalei buruzko kalkulua zehaztasunezko ariketa bat izatetik oso urrun dago. Urrats asko egin behar dira hura egiteko, eta haietan suposizio batzuk onartu behar izaten dira, zeinek ez baitute zertan zuzenak izan, azterlana oso xehea izanik ere. Beste hitz batzuekin esanda, analisi akademiko bat da, non hipotesi asko onartu behar diren, arrazoizkoak

baina oso zalantzarriak, eta beste hipotesi arrazoizko batzuekin ordez litezkeenak, emaitza oso desberdinak ekarriz.

Zehazki, Lurraldeen araberako Kontu Publikoen Sistema berriaren emaitzak, 2011koak eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak uztailaren 23an argitaratua, lortu dira lurraldeen araberako kontu publikoen sistema bat eraikiz balizko Administrazio Zentral handitu batek abiatuta; izan ere, administrazio horri legozkioke, printzipioz, herrialdeko zerga-baliabide guztiak, eta hark, bero, haietatik parte bat bideratuko luke lurralde-administrazioetara, dela transferentzien bidez, dela zerga jakin batzuen lagapena eginez, araugintzarako eta kudeaketarako esku-menekin nahiz haiek gabe. Gero aztertzen da zamak (finantzaketa) eta etekinak (hartutako zerbitzuak) nola banatzen diren erregio bakoitzean, sistemaren ekitatea baloratzeko. Planteamendu horrek kritikak izan ditzake, alde batera utzita Nafarroako Foru Komunitateari ematen zaizkion emaitzetan ia oreka bat ageri dela ematen duenaren eta jasotzen duenaren artean. Zehazki, gure ustez, gutxienez ere oso zalantzarria da azterlanak heterogeneotasuna homogeneizatu nahi duenik, hain zuzen heterogeneotasuna delako autonomia erkidegoen izateko arrazoa eta, bereziki, foru araubidearen berezitasunak alde batera uzten direnik: autonomia eta zergen arloko baterako erantzukizuna. Hori guztia garrantzitsua, zeren eta jo bailiteke ekitate arazo gisa balora litezkeen elementu batzuk besterik gabe baliabideen kudeaketan izandako efizientzia handiago bati erantzuten diotela, baterako erantzukizunaren ondorioz.

Lurraldeen araberako Kontu Publikoen Sistemaren emaitzen lurralde-horizonteari dagokionez, 2011ko zerga-ekitaldiari buruzkoak izan dira soilik. Argazki finko bat izateaz gainera, zeinak soilik balio baitu ekitaldi horretarako, arazo argi bat badu, zeren eta urte atipiko bat izan baitzen, autonomia erkidegoetan zeuden inguruabar makroekonomiko dibergenteak direla eta.

Lurraldeen araberako Kontu Publikoen Sistema lantzeko erabilitako metodologiari buruzko balorazioaren erpin gisa, egileetako baten hitzak aipa genitzake; izan ere, 2004an, honakoa zioen balantza fiskalei buruz:

“... haien emaitzek dakarten interes izugarria ez dator bat estimaziorako metodologia argiro definitu eta orokorrean onartu bat egotearekin, eta horrek dakar era askotako ondorioak batera gertatzea, bai eta elkarren aurkakoak diren ondorioak ere, eta horrek eragozten du erregioen arteko elkartasun fluxuei buruzko eztabaida egitea.”

Horrenbestez, uste dugu Lurraldeen araberako Kontu Publikoen Sistema dela administrazio publikoen sistemaren ebaluazioari buruz egin daitezkeen hurbilketa ugarietako bat. Erabilitako metodologia ez da zehaztasunezko ariketa bat eta, mundu akademikoan bertan, bai aldekoak, bai aurkakoak dauzka.

2. Ea bere ustez txostenean jaso gabe gelditu den garrantzitsu izan litekeen elementu eta jarduketarik.

Bereziki esanguratsua iruditzen zaigu ez sartzeari foru araubideen funtsekzo ezaugarriak kontuan hartuko lituzketen elementu batzuk, zeren eta foru araubideek autonomia eta zergen arloko baterako erantzukizun handiagoa baitute araubide komuneko autonomia erkidegoek baino, bai eta eskumen-maila handiagoa ere.

Baldin eta lortu nahi dena bada sisteman ekitate eta berdintasun handiagoak egotea, abiapuntu gisa hartu beharko litzateke bai erreperitorio argi eta exhaustiboa egitea herritar guztiek jaso beharko lituzketen ondasun eta zerbitzu publikoei buruz, bai haien kalitatea neurtzeko modu homogenerik bat ere.

Halaber, eduki handiagoko ondorioak atera ahal izateko, denboran zehar izandako bilakaera aztertu beharko litzateke, urte jakin bateko inguruabar bereziak kentzeko eta, halaber, sistema publikoaren beste elementu dinamiko batzuk sartzeko; besteak beste, populazioaren bilakaera edo haren zahartzea, zenbait alderditan –esate baterako, pentsioetan–, eragin handia baitute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu